

Asisko gutuna

2023ko abuztua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

178. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Askotan harrotasuna eta apaltasuna jarrera kontrajarri gisa bizi ditugu. Baina agian biak behar dira gure bizitza pertsonala osasuntsua izan dadin. Ikus dezagun nola izan daitekeen hau.

Gogoetarako gaia

Harrotasuna eta apaltasuna

Ez dira gauza bera harrotasuna eta harrokeria, besteak baino gehiago eta hobeto sentitzeko nagusikeria. Harrotasuna bakarra eta errepikaezina naizela jakitetik dator, baina modu lasaian, naturalean. Inork ez ditu bizi izan, sentitu, sufritu eta gozatu niri egokitu zaizkidan gauzak. Nire antzeko jende asko dago, baina pertsona bakarra naiz ni. Nire historiak, familiak, ikasketek, nire bizitza ibilbideak berezia egiten naute. Bakarra gainera, bizi izan ditudan baldintzapekak modu guztiz pertsonalean egin ditudalako, batere estandarizatua. Bakartasun-kontzientzia hori beharrezkoa da barne-bizitza izateko.

Baina, aldi berean, eta aurrekoarekin inola-ko kontraesanik gabe, nire mugez ere jabetzen naiz. Bakar izate hori osotasunera deitua dago, eta hala ere etengabe aurkitzen dut ez dudala nire ametsen tamaina ematen. Kontraesanekin, desorekekin, frustrazioekin... topo egiten dut

beti. Gainera, bizitzan ez nabil beti zuzen, eta ez noa adi eta gogoz. Nire pitzadurak ezagutu behar ditut eta buztinezko naizela onartu. Honen guztiak ez nau miserian murgildurik uzten, uste osoa baitut sortzeko, sendatzeko, aurrera egiteko, altxatzeko gai naizela.

Bi osagai horiek, harrotasuna eta apaltasuna, beharrezkoak dira pertsonen bizitzan, benetan eta sinestun modura bizi ahal izateko. Jainkoarekin egiazko harremana bizi badut, bi alderdiek leku berria topatzen dute: Jainkoa da erabat eusten nauena eta paregabeago bihurtzen; bakarra da niri didan maitasunean. Eta, era berean, ez dut inoiz neure burua orain bezain bekatari aurkitu, eman zaidan maitasun horren merezi gabeko. Eta ez da apaltasun faltsua, inoiz ez bait nukeen halako merezimendurik amestuko. Eta dena bakean.

Ebanjelio pasartea: Lk 14,7-11

Ohartu zen Jesus gonbidatuek mahaiko lehen jarlekuak hartzen zituztela, eta aholku hauek eman zizkien: «Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izan daiteke eta; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”; orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsa gorrian. Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago”. Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena, goratu».

Frantziskotar espiritualtasuna

Asko eta asko ikusten zituen aginte-postuen irrikaz. Gogaikarri gertatzen zitzaion haien ausarke-ria, eta bere etsenpluz saiatzen zen halakoak izurri horretatik aldentzen. Esaten zuen Jainkoaren aurrean gauza ona eta atsegingarria dela besteen kargu izatea; baina gaineratzen zuen, berentzat ezer bilatzen ez zutenek eta beti eta gauza guztietan Jainkoaren nahiari adi zeudenek hartu behar zutela arimen erantzukizuna; hau da, beren buruaren salbazioaren aurretik ezer jartzen ez zutenek eta mendekoen txaloei ez baina haien aurrerapenari begiratzen ziotenek; gizakien estimazioa ez baina Jainkoaren aintza bilatzen zutenek; nagusi-karguaren irrikaz ez baina beldurrez zeudenek: karguan izanik, harrotu beharrean apaldu egiten zirenek eta, kargutik kenduak izatean, lur jorik geratu beharrean, goratuak sentitzen zirenek.

Min hartzen zuen, zenbaitek, bere lehenengo jokabidea utziz, aurkikuntza berriak medio hasiera-ko xalotasuna ahaztua zuelako. Asko nahigabetzen zuen, behin bere gogo osoz goiko xedeen atzetik zebiltzanak orain beheko gauza kaskarretara makurtu izanak eta, egiazko pozbideak baztertuz, gauza arin eta balio-gabeen artean askatasun hutsalaren eremuetan galdurik ibiltzeak. Horregatik, bada, otoitz egiten zion Jainko errukitsuari bere semeen askapenaren alde eta sutsu erregutzen, eman zitzaien bokazioan gorde zitzan. (1Zel 104.)

Otoitza

Emadazu, Jauna, ume baten sinpletasuna.
eta heldu baten kontzientzia.

Eman, Jauna, astronauta baten zuhurtzia.
eta salbamendu baten adorea.

Emadazu, Jauna, kale-garbitzaile baten apaltasuna,
eta gaixo baten pazientzia.

Emadazu, Jauna, gazte baten idealismoa,
eta agure baten jakinduria.

Emadazu, Jauna, Samariar Onaren prestutasuna
eta behartsuaren esker ona.

Emadazu, Jauna, zure dohainez betetako
nire anaiengan ikusten dudana

ona den guztia,

Egin nazazu, Jauna, zure santuen imitatzailerik,
edo hobe, zuk nahi duzun bezalakoa izatea:
arrantzalea bezain saiatua

eta itxaropentsu

kristaua bezala.

Egon nadila zure Semearen bidean
eta anai-arreben zerbitzuan. Amen.

Ignacio Larrañaga

Gutuneko azken hitzak

Zu gerta dakizukeen edozer baino gehiago zara, eta inoiz ez egon ziur zeure jakinduriaz.

2023ko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Mt 13, 36-43

8 Mt 14,22-36

15 Lk 1,39-56

22 Mt 19, 23-30

29 Mk 6, 17-29

2 Mt 13, 44-46

9 Mt 25, 1-13

16 Mt 18,15-20

23 Mt 20,1-16

30 Mt 23, 27-32

3 Mt 13, 47-53

10 Jn 12, 24-26

17 Mt 18, 21-19,1

24 Jn 1, 45-51

31 Mt 24, 42-51

4 Mt 13, 54-58

11 Mt 19,27-29

18 Mt 19, 3-12

25 Mt 22,34-40

5 Mt 14, 1-12

12 Mt 17, 14-20

19 Mt 19, 13-15

26 Mt 23,1-12

6 Mt 17, 1-9

13 Mt 14, 22-33

20 Mt 15, 21-28

27 Mt 16, 13-20

7 Mt 14, 13-21

14 Mt 17, 21-26

21 Mt 19, 16-22

28 Mt 23,13-22

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Abuztuko otoitza hilaren
31n izango da.